

Bilduma hau nola erabil ?

Bilduma honela osatua da :


- **25 kolorezko marrazki eta bakoitzari dagokion testua.** Biak (marrazkia eta testua) elkarren ondoan eman behar dira ikasleen agerian.
- Kolorezko marrazkiaren beste aldean, irakasleak **bertso-ipuinen testua eta esku mugimenduen itxurak** aurkituko ditu.
- Agerian emaitako den bertso-ipuinen testuaren beste aldean, **ikaslearen marrazkia** eskaintzen dugu. Irakasleak behar bezainbat aldiz fotokopiatzen ahalko du, ikasleek margo dezaten.


Marrazkien azpian lekuño bat utzi dugu, ikasleak hitz bat edo zenbait idatz ditzan berak.

- **Gidaliburuan bertso-ipuin bakoitzari dagokion gainerako ustiapena heldu da eta bukaeran, landu diren jakintasunen bildumak.**

Bertso-ipuin bakoitzarentzat ariketa edo joko andana bat proposatzen dugu, honela sailkatuak :

 hizkuntzaren lantzeko (ahoskera*, hiztegia...)

 matematikaren lantzeko (hiruzpalau bertso-ipuinetan bakarrik)

 iharduera zenbait asmatu ditugu; horren kariatara landu hizkuntza nozioak, eskuin aldean agertzen ditugu.

Bestalde, **proiektu bat** (edo bi) badago bertso-ipuinen izenburutik landa : zeharkako gaia da. Haurrak, bere ikasketez jabetzeko, jakin behar du zergatik eta zertarako dituen gauzak egiten. Ondorioz, gogo gehiagorekin ari da.

Azkenik, **beste bertso-ipuin** zenbait emendatzen ditugu : ez dute erhi jokorik eskaintzen (non ez dituen irakasleak berak asmatzen...); iduritu zaigu hizkuntzaren aberasteko balio dutela.

Bertso-ipuin bat hautaturik, irakaslea kolorezko marrazkitik abia daiteke, ikasleen mintzarazteko. Ondotik heldu da bertso-ipuinen deklamatzeari. Egunean oren laurden batez arituz, zenbait egunen buruan haurrek gogoan atxikia dute. Orduan erhi jokoa egin daiteke eta bukatzeko ariketa edo joko bat (ikus adibide zenbait gidaliburuan). Ez da bide bakarra : irakaslea erhi jokorekin has daiteke, bertso-ipuina kondatuz.

Bilduma hau, eskola publikoetako zein pribatuetako irakasle multzo baten lanari esker argitaratzen dugu. Ustiapena artoski apailatua izanik ere, beti hobetzen edo osatzen ahal da. *Kantiruri* gure lehen argitalpenaren kariatara egin genuen gisan, aldi honetan ere gomitatzen zaitugu, irakurlea, zure oharren eta proposamenen helaraztera.

*ahoskera :

Xistukari frikariak : /s/ (graf : z) - /ś/ (graf : s) - /š/ (graf : x)

Xistukari afrikatuak : /c/ (graf : tz) - /ć/ (graf : ts) - /č/ (graf : tx)

Dardarkariak : /r/ (graf : r) - /ř/ (graf : rr)

Leherkari belareak : /k/ (graf : k) - /g/ (graf : g)

Leherkari sabaikariak : /t/ (graf : tt) - /d/ (graf : dd)